

2015

SAN TELMO MUSEOA

donostiakultura.com

2015. urtea lan handiko urtea izan zen San Telmo Museoa, bai barruan eta bai jendeari begira. Lan horren emaitza zenbait zerbitzu eta instalazio hobetzea izan da, bai eta erakusketen eta jardueren eskaintza zabala ere. Museoak sendotu egin zuen kulturagune gisa duen ibilbidea; gure ondarea kontserbatzeaz eta ezagutarazteaz gainera, gaur egungo gaiak eztabaidatu dira, arte-proposamenak egin ditugu, eta hiriko kultur bizitza indartsuaren barruan jardun dugu.

Jarduera horiek guztiak zifretan ageri dira: 2015ean, San Telmo Museoak eta Urgulleko erakusketak 261.880 bisita izan zituzten; 122.528 Museoak eta 139.352 Urgullek.

GURE ONDAREA

Museoaren ondarea osatzen duten bildumek ia **34.000 objektu** dituzte **katalogatuta** dagoeneko. 2015ean, zenbait bilduma dokumentatzen eta ikertzen jarraitzeaz gainera –zehazki: artistikoa, argazkiena eta ehunena–, bildumen katalogoko datuak Eusko Jaurlaritzaren **EMSIME sistemara** aldatzen jarraitu dugu, eta, horri esker, linean kontsultatu ahal izango dira Museoko bildumak. Dokumentazio-zeregin horietan, aurrera egin dugu bildumen parte bat digitalizatzen. Orobat, lanean jarraitu dugu **Gordailuan**, Gipuzkoako Kultur Ondare Higigarrien Zentroan, non gordetzen baitira Museoan ikusgai ez dauden funtsa gehienak; esan daiteke funtsak hara eramateko lanak amaituta daudela ia. Hain zuzen ere, Gordailuan dagoen ehun-bilduma dela eta, kontserbazio lan handia egin da jantzien atalean: 885 piezatan jardun dugu, eta azterketak egin ditugu kontserbazio-egoerari buruz.

Eskulturak zaharberritzen ere jardun dugu –besteak beste, Bastidako krismoia, Erromanikoaren Adiskideen Elkartearen lankidetzaz–, bai eta pinturak ere, eta batez ere argizaiola-bilduma.

Museoaren eraikinari dagokionez, zenbait hobekuntza egin dira instalazioen estalkietan, oholtza-zoruetan eta segurtasun- eta klimatizazio-instalazioetan, instalazio elektrikoan eta abar.

Azkenik, eta udal ondareari dagokionez, Gas Fabrikako bilduman eta Mandasko Dukearen Jauregiakoan esku hartu dugu.

STM

San Telmo Museoa



ERAKUSKETAK

Museoko erakusketa iraunkorrean, zeinak euskal gizartearen hasieratik gaur egun arteko ikuspegi bat jartzen baitu ikusgai, berritu egin ziren arkeologia-piezak, eta hobetu egin zen bisitariarentzako informazioa. Orobat, ikusgai jarri ziren **Sertek** elizako mihiseetarako egindako zirriborroak.

Aldi baterako erakusketek dagokienez, **Suturak. Cerca lo próximo** izenekoarekin hasi genuen urtea. Urtarrilean egon zen ikusgai. Artium-ekin lankidetzan egin zen. **Mendia** eta **Japoniar lorategi bat: hutsaren topografiak** programatu ziren otsailean eta maiatzean, formatu handiko erakusketak, eta batera egon ziren Museoko aretoetan. 15.000 bisitari inguru izan zituen bakoitzak. Lehena Club Vasco de Camping-ekin batera egin zen, eta bigarrena Casa Asia eta Matadero Madrid-ekin. Pier Paolo Pasolini izan zen udako protagonista, **Pasolini Roma** erakusketan, CCCB, Cinematèque Française, Erromako Palazzo delle Esposizioni eta Berlingo Martin Gropius Bau-rekin lankidetzan. 16.000 lagun baino gehiago izan ziren erakusketan eta hango jardueretan, ekainetik urrira bitartean. Urtea amaitzeko, **Hain urrun, hain hurbil** argazki-erakusketa izan genuen; 2016ko urtarrileko lehen egunetara arte iraun zuen.

Laborategia gunean ere erakusketa interesgarriak izan ziren, formatu txikiagokoak, hala nola **Comète. Ihesbide sare**, II. Mundu Gerran iheslariak laguntzen ziren sare klandestinoari buruz; **Jazzaldia 50**, Donostiako jazzaldiaren 50. urteurrena ospatzeko; **Elías, vida mía**, Elías Querejeta zine-ekoizlearen oroigarri; eta **Ikimilikiliklik. J.A. Artzeren unibertsoa**, ikus-entzunezko instalazio bat Joxean Artzeren sorkuntza-munduari buruz.

JARDUERAK

Museoak askotariko jarduerak programatzen jarraitu zuen, batzuk aldi baterako erakusketekin lotuak –nabarmentzekoa **Mendia** erakusketaren inguruan antolatutakoen arrakasta–, baina baita beste era batekoak ere, hala nola familientzako tailerrak ikasturtean zehar, aisialdirako programa bat eskaintzeko belaunaldi desberdinek beren sorkuntza- eta arte- esperientziak eta esperientzia ludikoak parteka zituzten. Artistaren tailerrak dira nabarmentzeko moduko beste ildo batzuk programazioan; 2015ean, **Esther Pizarro**, **K. Jauregi**, **Iñigo Royo**, **J.R. Amondarain** eta **I. Gracenea** izan genituen gure artean. Urtean zehar, **Jauzarrea zikloko**



Erakusketa: *Suturak. Cerca a lo próximo*



Erakusketa: *Un jardín japonés*



Erakusketa: *Pasolini Roma*


hitzaldiak izan ziren, bai eta soziolinguistika-topaketak ere, **Bagerak** antolatuta. 2015ean, EHUren **Zientzia Astea** egin zen, bai eta musika garaikideko kontzertuak ere, **Musikagileak** elkarteak, **Musika Hamabostaldiak** eta **Jazzaldiak** antolatuta. Museoak Aranzadiren Etnografia Jardunaldiak hartu zituen, eta berriro parte hartu zuen Museoen Kongresuan. San Telmo Museoa izan zen **FICAB**en sail ofizialaren egoitzetako bat 2015ean.

Museoen Nazioarteko Egunaren inguruan programaturiko jarduerak, bai eta **Aste Santuko eta Gabonetako programazio bereziek** ere, oso harrera ona izan zuten. Museoak **Artista Liburuen Feria** antolatzen parte hartu zuen, beste erakunde eta kultur eragile batzuekin batera.


Dokumentazio eta eztabaida gunea, dokumentazio-eta ikerkuntza-materialak eskaintzeko lana egiteaz gainera, sendotu egin zen Museoaren programazio-ildo nagusien artean; **Erronkak** eremua garatu zuen, 2015ean zenbait formatutako proposamenak eginez, hala nola hitzaldiak, proiektzioak, mahai-inguruak edo mintegiak. Generoa, ingurumena, literatura, desberdintasuna eta beste gai batzuk, denak ere gizarteak gaur egun dituen kezken artean daudenak, jorratu dira Museoko Erronkak programazioaren proposamenetan.

Azpimarratzekoa **Europar Elkarrizketak** urteroko zikloa, DSS2016Eurekin eta Globernance-rekin lankidetzan antolatua; hilean hitzaldi bat izateko bidea eman zuen herritarrengan eragina duten zenbait gai buruz, Europaren eraikuntzaren eta arazoaren inguruan.

Museoak Donostiako Udaleko Lankidetzaren departamenduarekin daraman elkarlanari esker, topaketa interesgarriak sartu ahal izan ziren Museoaren programazioan nazioartean diren arazoei buruz. Museoak mintegi bat antolatu zuen, **Emakumeek diotena**, hizkuntzak emakumea espazio publikoan izendatzean duen garrantziari buruz. **Literaktumen** eta **Zine-ideiak eta ideiadun zinea** zikloaren bigarren edizioan, interes handiko gaiak jorratzeko eta eztabaidatzeko aukera egon zen.



Zientzia Astea



Musikagileak



Gabonak

HEZKUNTZA

2015ean, Museoko Hezkuntza departamenduak lau lan-ildo garatu zituen: ikastetxeetara hurbiltzea **Museoari eta Museoko zerbitzuei begira dituzten hezkuntza-premiak** jasotzeko; ikastetxe batzuekin hasitako lankidetzak, **elkarrekin jarduteko material didaktikoak diseinatzeko**; **gizarteratze-kolektibo** batzuekin hartutako konpromisoa, haiekin Museoa **jarduera didaktikoak** egiteko; eta **unibertsitate-munduarekiko harremanak**, Museoa era askotako soslaiak dituzten ikasleentzat topaleku gisa eta prestakuntza-gune gisa erabiltzeko.

500 eskola-taldek baino gehiagok bisitatu zuten Museoa, dela erakusketa iraunkorra ikusteko, dela aldi baterako erakusketaren bat ikusteko.



Jarduerak

URGULL

Ia 40.000 lagunek bisitatu zuten **Donostiari begira** erakusketa Urgullen, eta berriz ere udako hilabeteak izan ziren jende gehien erakarri zutenak, 34.000 eta 42.000 lagun uztailan eta abuztuan, hurrenez hurren. *Donostiari begira* erakusketaren parte bat berritu zen, eta mendiko kanoien bilduma zaintzen jarraitu genuen.

KOMUNIKAZIOA

Eremu digitalean, nabarmentzekoa da web-orriko **multimedia saila** martxan jarri izana, Museoa izan diren hitzaldi interesgarrien bideoak han esekitzeko. Bestalde, Museoa egunero eskaini zion arreta **twitter**ren duen kontuari, eta urtearen buruan 4.500 jarraitzaile baino gehiago zituen.

Offline komunikazioari dagokionez, berriz, erakusketa iraunkorretarako, aldi batekoetarako eta beste jarduera batzuetarako euskarriak ekoizten jardun genuen. 25 prentsaurreko baino gehiago izan ziren Museoa 2015ean, eta prentsa-oharrak bidali, albisteak idatzi eta dossier informatiboak egin ziren.

Komunikazio-departamentutik, halaber, publizitatea kudeatu zen, Museoa babesle pribatuei eta enpresa ongilei esker dituen espazioen barne. Erakusketa nagusiei buruzko kanpainak egin ziren, eta bazkideak erakartzeko jarduera jakin batzuk urtearen amaieran.



Urgull



Erakusketa iraunkorrak

PUBLIKOAK

2015ean landu diren zenbait proiektuk jarraipena izango dute gerora ere. Nabarmentzekoen artean, boluntarioen programa da bat, 55 urtetik gorako gidariekin osatua; 2014an jarri zen martxan, eta 2015ean sendotu eta indartu egin zen, zenbait berrikuntza eta gidari boluntarioak taldean sartuta. **Museoen museo** proiektuak ere garatzen jarraitu zuen; foileto berri bat argitaratu zen, bisitariak San Telmo gure inguruko ehundik gora zentzorekin lot dezan. Urte osoko larunbatetan izan dira erakusketa iraunkorrerako edo aldi batekorako bisita programatuak, eta asteartean, berriz, 55 urtetik gorakoek doan izan dituzte bisitak.

Museoak 850 bazkide baino gehiago zituen urtearen amaieran, eta kopuru hori goraka doa urtetik urtera.



Publikoak

HARREMAN INSTITUZIONALAK

Museoak harremanak ditu instituzio eta kultur eragile askorekin, eta jarduerak, elkarlanak eta proiektuak egiten ditu haiekin batera. Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Euskadiko Filmategia, Bagera, DIPC, Globernance, Donostia 2016, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Donostiako Udaleko Lankidetzak Departamendua, Ankulegi, Club Vasco de Camping, CSIC, Donostia Turismoa, Albaola, Musikagileak, Basquetour...

Etengabea da, halaber, beste zentro eta museo batzuekin hainbat mailatan dugun lankidetzak: Oteiza Museoa, Pradoko Museoa, CCCB, Untzi Museoa, Zumalakarregi Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Artium, Malagako Carmen Thyssen Museoa, Baionako Musée Basque et de l'Histoire, Casa Asia, Matadero Madrid, BIBAT...

Garrantzi berezia du San Telmorentzat babesle pribatuen ekarpenak, enpresa ongileenak eta enpresa laguntzaileenak. Honako hauek izan dira 2015ean: Kutxa, EITB, El Diario Vasco, Altuna y Uria, Cadena SER, Berria, Gara, Naiz, Argia eta Hamaika Telebista.

ALOKAIRUAK ETA EKITALDIAK

Askoz gehiagotan alokatu dira Museoko gune batzuk bertan ekitaldiak egiteko, eta hartara diru-ekarpen handiagoa egin dute urtean.



Harreman instituzionala



Alokairuak eta ekitaldiak

SAN TELMO MUSEOKO BISITARIAK:

STMko bisitari kopurua (museoa, erakusketak, jarduerak)	122.528
URGULL ERAKUSKETA bisitari kopurua	139.352
BISITARIAK GUZTIRA	261.880
STMko aldi baterako ERAKUSKETAK bisitari kopurua	67.999
STMko JARDUERAK partaide kopurua (alokairuak barne)	30.715
BISITA GIDATUAK	10.208